

IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

HE1

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

1 "Irakasleak beti goستن du Ainhoa". Zer esan nahi du?

- a) Gutxietsi egiten duela.
- b) Ez diola kasurik egiten.
- c) Goraipatu egiten duela.
- d) Iraindu egiten duela.

2 Ausarta ez da beldurrik ez duena; bai,, hura gainditzen duena.

- a) behintzat
- b) aldiz
- c) noski
- d) halaber

3 Ganorarik ez duenak ez du

- a) adorerik.
- b) trebetasunik.
- c) adimenik.
- d) fundamenturik.

4 Legetik kanpora ez dela ezer egingo, dio presidentek.

- a) ohartarazi
- b) eraso
- c) debekatu
- d) galarazi

5 Zein da zuzena gramatika aldetik?

- a) Eman dezagun bai konturatu direla.
- b) Eman dezagun baietz, konturatu direla.
- c) Eman dezagun bai, konturatu dira.
- d) Eman dezagun baietz, konturatu dira.

6 Zerbitzariari bezeroak prezioaz gainera sari gisa ematen diona:

- a) Ordainsaria
- b) Ordaina
- c) Eskupekoa
- d) Eskerrak

7 Zein dago ONDO?

- a) Kenduko naiz jertsea.
- b) Jo dit makila batekin.
- c) Andereño bat daukagu Igorrekoa dela.
- d) Bero handia dago.

8 Oporretan izan naiz eta, bat ekarri dizut.

- a) oroipen
- b) oroitzapen
- c) oroigarri
- d) 2008/3/1

9 Mikelek musu-truk utzi zien logela.

- a) Doan utzi zien.
- b) Beste mesede baten truke utzi zien.
- c) Maitasun-trukean utzi zien.
- d) Jolaserako utzi zien.

10 Irakurzaletasuna ez da kontua bakarrik; ere zaindu beharra dago.

- a) umeetako / helduetan
- b) umetako / helduetan
- c) umetako / heldutan
- d) umeetako / heldutan

11 Horrelakoetan nork bereari eustea ez dago.

- a) bezala
- b) bezainbeste
- c) bezalakorik
- d) halakorik

12 Elkartasuna aipatu, askok aipatzen dute, gutxiak dakite zer den.

- a) baina
- b) alderantziz
- c) behinik behin
- d) berriz

13 ondo ikusiko lukete galdeketa egitea.

- a) Hamar lagunetik sei
- b) Hamar lagunetik seik
- c) Hamar lagunetatik sei
- d) Hamar lagunetatik seiak

14 "Horrek niri adarra jo?" Eman jarraipen egokia.

- a) Baita ere!
- b) Baita ere zuri!
- c) Baita zera ere!
- d) Baita!

15 "Batek daki zer gertatuko den etorkizunean". Zer esan nahi du?

- a) Badagoela hori dakienik.
- b) Batek bakarrik dakiela.
- c) Ez dagoela hori jakiterik.
- d) Jakingo dela noizbait.

16 "Andereño, sar ninteke klasera?" Aukeratu erantzun egokia.

- a) Nola ez, ba!
- b) Sartuko zara.
- c) Dudarik agian!
- d) Baietz!

17 "Nori erasotzen dion begiratu gabe jokatzeari leporatu diote Israeli". Zer leporatu diote?

- a) Zirt edo zart egitea.
- b) Itsu-itsuan aritzea.
- c) Azpijokoan jardutea.
- d) Bolo-bolo ibiltzea.

18 Habiara zizareekin itzuli zenean, txorikumeek txioka

- a) aritu ziren.
- b) hartu zuten.
- c) entzun zioten.
- d) joan zitzaizkion.

19 Karmen baserrian bizi da, eta baserria du ogibide; alegia,

- a) baserritik bizi da.
- b) baserriko bezeroa da.
- c) baserrian hazia da.
- d) baserrian jaioa da.

20 Nolakoak ziren aurkitu zenituen onddoak?

- a) Ezin hobeak
- b) Ezin hobeto
- c) Ezin hobeagoak
- d) Ezin onagoak

21 Zein da DESEGOKIA?

- a) Ortua jorratu dut.
- b) Gai hori Koldo Mitxelenak jorratu zuen.
- c) Euskara ikasteko bideak ondo jorratuta daude.
- d) Traineruek itsasoa jorratu zuten.

22 Zelan idazten da 173?

- a) Ehun eta hirurogeita hamahiru.
- b) Ehun ta hirurogei ta hamahiru.
- c) Ehunda hirurogeita hamahiru.
- d) Ehun ta hirurogeitahamahiru.

23 Ohetik jaiki eta hartzen dut.

- a) baso bat esne
- b) esne baso bat
- c) basokada esne bat
- d) baso esne bat

24 Lan asko duzula adierazteko, zein da egokia?

- a) Lanez bizkar nabil.
- b) Lanez lepo nabil.
- c) Lanez buru nabil.
- d) Lanez kopeta nabil.

25 Irabaziko zuela eta,, usteak erdia ustel.

- a) bai zera
- b) tira
- c) hala ere
- d) auskalo

26 Gu, gazteok, gure adinekoek baino ez uler.

- a) diezagukete
- b) genituzke
- c) gaituzkete
- d) gaitzakete

27 D ereduan ikasiko dute ikasleen

- a) % 56,1k
- b) % 56,1ek
- c) % 56,1
- d) % 56,1ak

28 hona Maria jo dutenak!

- a) Etor zaitezte
- b) Betor
- c) Datozela
- d) Zatozte

29 "Gizon bat atxilotu du Foruzaingoak emaztea ustez jipoitzeagatik". Zer esan nahi du?

- a) Benetan jipoitu zuela.
- b) Balitekeela jipoitu izana.
- c) Ez zuela jipoitu.
- d) Jipoitzeko asmoa zuela.

30 "Arrautza erruten ari da". Zein?

- a) Sukaldaria
- b) Oilarra
- c) Oilaskoa
- d) Oiloa

31 "Gaur entsalada bizi atera zait". Zer bota diot soberan?

- a) Olio
- b) Ozpina
- c) Tipula
- d) Artoa

32 "Lehentasunak ezarrita dauzkala digu zuzendariak". Zein da DESEGOKIA?

- a) jakinarazi
- b) aditzera eman
- c) hitzartu
- d) adierazi

33 Behe-ezpainaren azpian dagoen aurpegi-zatia da.

- a) kokotsa
- b) kokondoa
- c) kokotea
- d) kokospea

34 Ez dizuet deus ere ulertu; ezta ere.

- a) zorrik
- b) bitxirik
- c) zirkinik
- d) tutik

35 Haurren proteina beharra helduena da, proteinek hazkundean hartzen baitute parte.

- a) behar bestekoa
- b) adinakoa
- c) baino baxuagoa
- d) baino handiagoa

36 Nola irakurtzen da 3/5?

- a) Bost hiruko.
- b) Hiru bosten.
- c) Hiru ber bost.
- d) Hiru bider bost.

37 Zeinetan dago "x" hizkia GAIZKI idatzita?

- a) Existitu
- b) Sexu
- c) Lexiko
- d) Expreski

38 Aurrerantzean gu sarri etorriko bisitan.

- a) zaizkigu
- b) gatzazu
- c) zatzaizkigu
- d) gatzazkizu

39 Zein da zuzena?

- a) Zein pertsonaren erabakia izan da?
- b) Hainbat jendeen iritzia entzun dugu.
- c) Makina bat umeen jostailuak banatu ditugu.
- d) Edozein etxearen prezioak ordaindu ezinak dira.

40 "Bileran, hartu genituen erabakiak". Zein da DESEGOKIA?

- a) di-da
- b) aitaren batean
- c) behingoan
- d) zaplasteko batean

41 Xalbadorrek bertso asko eskaini zien euskaldunei.

- a) lekutako eta hemengo
- b) leku bateko eta besteko
- c) leku bateko eta beste lekutako
- d) leku bateko eta bestelako

42 "Huntza paretari bezala ume hori amari zaio". Zein da DESEGOKIA?

- a) lotzen
- b) urruntzen
- c) atxikitzen
- d) itsasten

43 Elkartasuna eta babesa adierazi azken erasoak jasan

- a) dizkiegu / dituztenei
- b) dizkiegu / dutenei
- c) ditugu / dietenei
- d) ditugu / dizkietenei

44 Orain arte esandakoak azalari dagozkio; begira orain mamiari.

- a) diogun
- b) zegozkion
- c) dezagun
- d) diezaigun

45 Zer egingo duzu?

- a) Jan; baita siesta egin ere.
- b) Jan; ere siesta egin.
- c) Jan; eta ere siesta egin.
- d) Jan; ere bai siesta egin.

46 Batzordean denok ados geunden eta erabakiak hartu ditugu.

- a) ahoz gora
- b) aho batez
- c) ahoz aho
- d) aho betean

47 "Azken boladan Miren aztoratuta dabil". Hau da:

- a) jairik jai dabil.
- b) ez da ezertaz gogoratzen.
- c) bere onetik aterata dabil.
- d) maiteminduta dabil.

48 "Jokatzeko gogo bizia dauka"; alegia,

- a) intzirika dago.
- b) irrikan dago.
- c) bitsetan dago.
- d) kitzikan dago.

49 Iazko liskarren sortzaile eta buru izatea dio epaileak.

- a) eragotzi
- b) egotzi
- c) igorri
- d) igarri

50 Zein dago ondo idatzita?

- a) Lurretik lurrara
- b) Zelaetik zelaiera
- c) Asteazkenetik igandera
- d) Otsailatik maiatzara

51 Zer da mutil hitzontzia?

- a) Hitza gordetzen dakiena.
- b) Hitzekoa dena.
- c) Hitz-jarioa duena.
- d) Hitza hartzen duena.

52 Ikaragarrizko lana izan dugu eta iritsi naiz etxera.

- a) zur eta lur
- b) leher eginda
- c) etsi-etsian
- d) jota-jota

53 "Ziri ederra sartu zion maisuari!" Zer egin zion?

- a) Beherakoa eman.
- b) Astindu.
- c) Gezur galanta esan.
- d) Gustuko oparia egin.

54 "Ez nuen hartan sartu nahi". Zein da DESEGOKIA?

- a) nahaspila
- b) zalaparta
- c) saltsa
- d) ziri

55 Ia-ia bertan gelditu gara. Eskerrak Iratxek autoa

.....

- a) ekarri du.
- b) ekarri duelarik.
- c) ekarri duen.
- d) ekarri duelako.

56 Norberak arropa garbitzeko autozerbitzua jarri dute

- a) garbitegian.
- b) garbikarian.
- c) garbiontzian.
- d) garbigarrian.

57 Zuk erositako prakak dira.

- a) nirea bezalakoak
- b) nirearen bezalakoak
- c) nireak bezala
- d) nireak bezalakoak

58 Ni oporretan Parisera joan naiz; zu,, Lisboaara.

- a) behinik behin
- b) berriz
- c) alderantziz
- d) alabaina

59 Irakaskuntzako sindikatuek jarri dute dekretuaren aurka.

- a) ziurtagiria
- b) txostena
- c) jakinarazpena
- d) helegitea

60 "Hiru txirrindulariak iritsi ziren helmugara". Zein da DESEGOKIA?

- a) hurrenez hurren
- b) aurrez aurre
- c) orpoz orpo
- d) errenkadan

61 Berrogei inguru gara lanean eta bost batek ez daki ordenagailua erabiltzen.

- a) lankidetik
- b) lankideren
- c) lankideotatik
- d) lankideetatik

62 Jale txarra dela esateko:

- a) Hi beti tati-tati!
- b) Txatxua halakoa!
- c) Hi baino jatunagorik!
- d) Mizkina haiz, gero!

63 Zein dago ONDO?

- a) Agur lagunok, joaten naiz etxera!
- b) Umeak hamar urtebete dauzka.
- c) Aitziber sorgin mozorrotuta irten da kalera.
- d) Nire ustez, hau txarto dagoela.

64 Luzaro elkar ikusi gabe egon ondoren, berriro elkar ikustean:

- a) Adiskidea aspaldiko!
- b) Hau zoramena, hau!
- c) Kaixo, aspaldiko, bizi al zara?
- d) Tira ba!

65 Zein EZ DIRA sinonimo?

- a) hurrean / hurbil
- b) bete / ase
- c) eskegi / jaitsi
- d) erregua / eskaria

66 Zein da gramatikalki zuzena?

- a) Hor daude bi horiek elkar begira.
- b) Israel eta Palestina, beti elkarri erasoka.
- c) Jon eta Miren elkarrekin gertu bizi dira.
- d) Sendagileak eta gaixoak elkarrentzat beharra dute.

67 Istripu larri batean hainbat zauritu baina hildakorik ez dela izan jakitean:

- a) Gaitz erdi!
- b) Tamalez!
- c) Hau zoritxarra!
- d) Zorigaiztokoa!

68 "Noraezean dabil batetik bestera". Beste modu batean esanda:

- a) Nora jo ez dakiela dabil.
- b) Badaki nora ez jo.
- c) Ez du inora joan nahi.
- d) Ez dauka nora joan.

69 "Industria Sailaren erabakiak, zalaparta eragin du". Zein da baliokidea?

- a) Askok kosta zaio erabakia hartzea.
- b) Istilu askoren ondorio da.
- c) Harrera bikaina izan du.
- d) Hautsak harrotu ditu.

70 Alde egin dutenak geratu direnak hobeak dira.

- a) bezalako
- b) bezain
- c) baino
- d) beste

ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK**HE1**

1	C	11	C	21	D	31	B	41	B	51	C	61	A
2	B	12	A	22	A	32	C	42	B	52	B	62	D
3	D	13	B	23	A	33	A	43	A	53	C	63	C
4	A	14	C	24	B	34	D	44	D	54	D	64	C
5	B	15	C	25	A	35	D	45	A	55	C	65	C
6	C	16	A	26	D	36	B	46	B	56	A	66	B
7	D	17	B	27	B	37	D	47	C	57	D	67	A
8	C	18	B	28	C	38	D	48	B	58	B	68	A
9	A	19	A	29	B	39	A	49	B	59	D	69	D
10	C	20	A	30	D	40	D	50	C	60	B	70	C